

# Bermeon zer?

1. zenbakia | uda 2008

## Bost erakunde gehiago «Geurien be bai» egitasmoan

**Urtez urte,** gero eta gehiago dira «Geurien be bai» egitasmoarekin bat egiten duten erakundeak. Aurten 5 erakunde hurbildu dira: Besalde (Bermeo Sahararen Alde), Barrueta Arte Elkarte, Bermeoko Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkarte, Ezkerra Produkzioak (Kafe Antzokia) eta Create.

Urtero legez, Arrain Azoka aprobetxatuz, herriko hainbat enpresa, elkarte eta txoko elkartu ginen egitasmoarekin bat egiteko. Bermeok euskaraz bizi nahi du eta aurten ere gogo hori argi geratu da «Geurien be bai» egitasmoaren hitzarmenaren sinatze-ekitaldian.

Bermeoko 54 erakundek euskara gehiago erabiltzeko hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 23an. Bertan, Bermeoko Udalaren izenean Xabier Legarreta alkatea bera ere egon zen euskararen aldeko konpromisoa berresteko.

Hitzarmenaren sinatzaileei "Geurien be bai euskaraz" pegatina oparitu genien euskararen alde egiten duten lana aitortu eta eskertzeko.

Ekitaldia amaitzeko eta guztion ikuspegiak elkartrukatzeko luntx paregabeaz gozatzeko aukera izan genuen.



Albacora, Astilleros de Bermeo, Bermiopost, Create, Cusumano, Busturialdeako Hitz, Berton, Garavilla (Isabel), Arroyabe (La Gaviota), Lebazaleen kooperatiba, Royo, Salica, San Pedro Kofradia, Serrats, Zallo, Echebatar, Beruala, Azoka berria saltzaileen elkarte, ELA, LAB, CC00, BBK, Euskadiko Kutxa, Bankoa, Behargintza, Bermeo Kafe Antzokia (Ezkerra produkzioak), Artza Pelota elkarte, Itsuki irratia (Berko kultur elkarte), Bermeoko Arraun elkarte, Bermeoko ehiza, arrantza eta tiro elkarte, Bermeoko Futbol taldea, Bermeoko saskibaloit taldea, Kick Boxing Elkarte, MB 2000 Aisialdi taldea, Sollube 707 Mendi taldea, Urdaibai arraun elkarte, Urdaibai begirale taldea, Urdaibai eskubaloit taldea, Xixili gimnasia taldea, Adiskide txokoa, Alkartasuna dantza taldea, Barrueta arte elkarte, Bermeoko abesbatza, Bermeoko erraldoien konpartsa, Bermeotarrak fanfarrea, Besalde (Bermeo Shararen alde), Eroxepe emakume taldea, Euskaraz berbetan, Haitz Nagusije auzo elkarte, Hurre-hurre txokoa, Izaro abesbatza, Kai gane txokoa, Takon txokoa eta Zantzue kultur elkarte.



1. Zergaitik sinatu «Geurien be bai» hitzarmena?
2. Zuen erakundeari begira, zertan jarriko dozuez indarrak euskerea bultzatzeko?



### BESALDE Bermeo Sahararen Alde

1. Euskararen egoera gaur egun, ez da beharko lukeen modukoa, oraindik egoera diglosiko batean murgilduta gaude, hau da, oraindik gaztelera euskararen gainetik dago, ez dago maila berdinean, gure inguruari begiratu besterik ez dugu. Horrexegatik dira beharrezkoak "Geurien be bai" moduko ekimenak, beharrezkoa da guztion konpromisoa euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko.

2. Gure elkartean euskaren erabilera ia erabatekoa da, gure artekoan, kanpainetako propagandan (hauetan erdara ere agertzen da)... euskara beti dago presente. Udarako datozen ume sahararrekin ere (erdaraz gehiago egiten dugun arren, euren 2. hizkuntza da eta) euskaraz egiten dugu eta, hilabete biko kontaktua baino ez badute ere, nahiko ondo ulertzen dutela itzultzen dira euren herrira. Zoritxarrez, han berriro, trakesten dira, baina hurrengo urtean berehala harrapatzen dute berriro. Umek Euskal Herrira datoz, Bermeora, herri euskaldun batera hain zuzen ere, beraz, argi dago euskararekin nahitaezko harremana izan behar dutela.



### BERMEOKO EHIZA, ARRANTZA ETA TIRO ELKARTEA

1. Bada arrazoi nagusi bat mota honetako hitzarmen edota konpromisoak sinatzea eramaten zaituena. Euskal Herrian egonik bertokook uste dugu geure esku dagoela euskararen bizidarra ziurtatzea eta horretarako guztion aldetik zertxobai eman beharra badagoela. Hau kontuan izanik eta gure elkarteak 300 bazkideetik gora duela gogoratuz, zelanbaiteko indar nahiko potente moduan ikusi genuen geure burua eta euskarari herrei mailan bultzadan handi bat emateko aukera hau aprobetxatu beharra zegoela uste genuen.

2. Guztiok dakigu ezinezko dela guztientzako berdina eskaintzea eta, are gutxiago, gure taldean 300 bazkideetik gora daudenean. Euskara dakitenak dauden bezalaxe erdara hutsan bizi direnak ere asko dira, horregatik ezinezko zaigu goitik behera euskara gure elkartean sartzea. Hala ere, uste dut egin dezakegun gauza asko badela eta paisaia linguistikoa ahal dugun neurrian euskalduntzen hasiko gara oraingoz: bazkideei bidaltzen dizkiegun gutunak euskaraz eta gaztelaniaz idatziak egoteari, ekitaldiarako egiten ditugun kartelak euskaraz eta gaztelaniaz etb.(beti ere euskarari lehentasuna emanez).



### BERTON

1. Uste dogulako gure hizkuntza potentzia ahal dogula gure enpresearen bidez, batez be gure herriko dendetara gehienak euskeraz hurreratzin diralako.

Uste dogu euskerea ezin dala galdu, gure ondare historikoa, nortasuna eta biziteko modua dalako.

2. Berton alkateta hasikeratik bizi izan da euskeraz, esan dogun legez, uste dogulako gure herri-tarrakaz hartu-emon zuzena daukagula, euskeraz bultzatzeko talde apropos bat garalako. Gure herriko nagusiek, gehien bat, euskeraz egiten dabe berba, eta dendetara hurreratzin diranean hartu-emonak euskeraz izaten da. Gazteen artean be gero eta gehiago ikusten doguz gure saltokietan euskeraz berba egiten.

Berton alkartetik urtero egiten doguzan jardueren informazioa be euskeraz egiten da, bai herritarrei, bai merkatariei. Gure hartu-emonak, telefonoz, euskeraz egiten dira, eta erabilten dogun be gure bilatzailea Kaixo orrialdea da. Gure alkateta eta komertzioetan euskeraz biziteko ahalegin guztiak egiten doguz, geure hizkuntza dalako.



## BERMEOKO EUSKAL GUNEA

### Zer da Euskal gunea?

Euskararen normalizazioan hainbat arlotan lanean ari diren elkarten topalekua. Udalak Atalde 17, behan dauzkan lokaletan dago Euskal gunea.

### Zein elkarte eta talde daude Euskal gunean?

Alde batetik, herritarrak euskalduntzeko edota alfabetatzeko lana egiten duten euskaltegi biak, AEK eta Gotzon Garitaonaindia euskaltegiak. Beste alde batetik, euskaraz berba egiteko taldeek, Berbalagun proiektuak, lekua izango dute han. Euskeraz Berbetan Bermeoko euskara elkarteak bertan jarraituko du bere batzarrak eta lanak egiten. Eta azkenik, Busturialdeko Hitzak, eskualdean euskaraz argitaratzen dan egunkari bakarrak, erredakzioa eta bulegoa bertan kokatu ditu.

### Zertarako Euskal gunea?

Euskararekin zerikusirik daukaten ekimenek leku bat izan dezaten. Elkarte horiek egiten duten lanari laguntza eta babesa eman gura dizkio Udalak. Euskara gizartearen arlo guztietan modu normalizatuan erabiltzeko lan egin gura duten guztiei irekita egongo da Euskal gunea.

## EUSKARRI BERRIA

# Igo euskerearen olatura!



**Itsasgarri honek,** datozan hileetan, euskareagaz bustiko dau Bermeo osoa. GEURIEN BE BAI ekimenaren bitartez, alkarteek, txokoek eta enpresek barruko lana egin dabe batez be. Orain, urrats barria eman gura dogu, eta euskerearen aldeko konpromisoa herri osoko bazter guztietara zabaldu.

Hau da, hain zuzen be, euskarri honen funtzioa: Bermeoko alkarte, txoko, denda, enpresa, ikastetxe, administrazi-

no, kultur gune... eta jentea dabilen lekuetan euskaldun guztiak euskeraz berba egitera animatzea.

Halanda ze, atara diran 1.000 itsasgarriei papera kendu eta itsatsi: leihoan, alkarteko koaderno edota karpetan, dendako mostradorean, txokoko sukaldetan, makinan, atean, ordenagailuan, itsasontzian... eta bururatzen jatzuen leku guztietan!

**Geurien be bai euskeraz!**

# 10

## PROPOSAMEN euskara gehiago erabiltzeko

### 1. LEHENENGO HITZA BETI EUSKARAZ

Edozein egoeratan, edozein lekutan, beti, lehenengo hitza euskaraz egiten baduzu, beste solaskideak jakingo du euskalduna zarela. Horrela, zuen hartu-eman euskaraz gauzatzeko aukera izango duzue.

### 2. KIDE BERRIAK DATOZENEAN EUSKARAZ EGIN

Zuen elkartera hurbiltzen denak, jakingo du euskaraz funtzionatu ahal izango duzue. Behin harremana euskaraz hasita, errazagoa izango da horrela jarraitzea.

### 3. HARTU TELEFONOA EUSKARAZ

Bai, esan? Erreza da, ezta? Ba, lixto!

### 4. TELEFONOAREN ERANTZUNGAILUA EUSKARAZ

Erraz-erraza da. Telefonía konpainia nagusiek badute euskaraz edo gaztelaniaz jartzeko aukera. Zeuek hitz egiten baduzue, izango da zuenean ahots ederra duen baten bat!

### 5. ELKARTEKO EDO TXOKOKO OHARRAK

Komuna ez erabili / Laster baten hemen izango gara... CDan badaude eredu batzuk.

Zuk behar duzuna ez a, jo ezazu Euskera Sailera; bertan lagunduko dizugu.

### 6. DOKUMENTAZIO IDATZIA: BATZAR-DEIAK

Errazetik hasi eta euskaraz idatzi lehenengo, ohitura hartzen joateko. Zalantza potoloak badituzue, laguntza eskatu.

### 7. EUSKARA GUTXI BADA KIZU, EDO IKASTEN BAZABILTZA, DAKIZUN APURRA ERABIL EZZAZU

Hasieran zaila egingo zaizu buruko txipa aldatzea. Baina zenbat eta berba gehiago egin euskaraz, errazagoa izango da. Kotxean ibiltzea bezala: zenbat

eta gehiago erabili, konfiantza gehiago, errazago, azkarrago...

### 8. LAGUN IEZAI OZU EUSKARA IKASTEN DAGOENARI

Ikasten dagoena, ahalegin itzela egiten ari da. Azkar-azkar berba egiten badiogu, ikaratu egingo dugu, eta betikoa esango du: bermeotar hauek ulertzerik ez dago! Baina astiro eta ondo ahoskatuz esanez gero gauzak, ulertu egingo eta asko lagunduko diogu.

### 9. WEB GUNEA

Interneteko erabiltzaileak gero eta gehiago dira, eta askok josten dugu bertara informazioa topatzeko. Bermeoko elkartei buruzko informazioaren bila



## HERRI BATZORDEA

### Egunkaria libre!

**Pasa den otsailean** bost urte bete ziren Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Egun hori gogora ekarri eta haren ondorioak oraindik ere hor daudela adierazteko, Egunkaria libre! Herri batzordea sortu zen Bermeen.

Herri batzordeak egungo egoerari buruzko informazioa zabaldu du, izan ere, hamabost Egunkaria-ko langile auzipetuta daude epaiketaren zain eta oraindik noiz izango den argitzetik ez badago ere, kartzela-zigor eskari handiei aurre egin beharko diete datozen hilabeteetan, Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendariak pasa den maiatzaren 27an Bermeon eskaini zuen hitzaldian esan zuenez.

Egunkaria libre! Herri batzordea hainbat euskaltzalek sortua da eta euren asmoa da auzi honen inguruan informazioa zabaltea eta jentea sentiberatzea. Parte hartu nahi duen edozein herritarrentzat zabalik dago.

## SERRATS

Kontserba-enpresa



### “Hasikeratik laguntza handia emon euskuen proiektuko arduradunek”

#### Zergaitik sartu zen Serrats Geurien be bai egitasmoaren barruan?

Egitasmoaren barri euki genduan, hasikeratik jakin genduan gu be horretan sartu behar ginala, azkenean gure hizkuntzea bultzatzeko eta indartzeko proiektua zan eta. Ganera, hasikeratik laguntza handia emon euskuen proiektuko arduradunek.

#### Hitzarmena lehenengoz sinatu zeduenetik egin dozue enpresan euskearearen presentzia handitzeko ekimenak, ezta? Zertan egin dozue esfortzurik handiena?

Esfortzurik handiena errotulazioan gabilz egiten, eta laneko aginduak be euskeraz ipini gura doguz.

#### Zuenaren moduko enpresa batean zeintzuk dira zailtasun handienak euskerea gehiago erabiltzeko?

Gure kasuan, bezero asko kanpotarrak dira, eta azkenean, eurek euskaraz ezin dogu egin. Baina, beste arazo bat be badaukagu: gure enpresan kanpotar asko dagoz lanean, ginearrak, sahararrak adibidez, eta bakotzak bere hizkuntzea dauka, gaztelaniaz be ez dabe oso ondo egiten,...

#### Serratsek euskera-plana diseinatu dauka. Zeintzuk dira euskera-planaren onurak? Langileen parte hartzea zelakoa izan da?

Onurak guretzako, euskaldunak garen heinean, asko eta herrian be eskertzen da egindako esfortzua. Langileen parte hartzea ez da erraza kalkuletea, nik neure kasua ikusita, esan neike, esfortzu handia egiten dodala euskera-plana beteteko. Eskerrak Ahize hizkuntza aholkularitza daukagun laguntzeko, bestela...

#### Hondino be gauza asko egin leitekeez, zein alderdi jorratuko dozue euskerea gehiago erabili daiten zuen enpresan?

Web gunea hor daukagu eta oso interesgarria da euskeraz eukitea. Dana dala, planari urterik urtera jarraitzea egiten deusagu, eta Ahizeko teknikariak eta biok batzartuta aurreikusten dogu zer egin, eta gero, zuzendaritzaren oneretia beharrezkoa da gauzak aurrera eramateko.



JON ANDER BILBAO  
Albacorako arduraduna

### “Informazio txarteletan eta web orrian ahalegin berezia egin dugu”

#### Zergaitik sartu zan Albacora «Geurien be bai» egitasmoaren barruan?

Euskereari lagundu eta gure artean gehiago zabaldu daiten, gure patrimonioa da eta.

#### Hitzarmena lehenengoz sinatu zeduenetik egin dozue enpresan euskerearen presentzia handitzeko ahaleginak, ezta? Zertan egin dozue esfortzurik handiena?

Informazio txarteletan, web orrian, alkarrizketetan, ahal dogun neurrian, bulegoetan eta itsasontzietan, enpresako euskaldunon artean.

#### Zuenaren moduko enpresa batean zeintzuk dira zailtasun handienak euskerea gehiago erabiltzeko?

Bai itsasontzietan, bai beste komunidade batzuetan daukaguzan bulegoetan, langile batzuk euskaldunak ez izatea.

#### Oraindik be gauza asko egin leitekeez, zein alderdi jorratuko dozue euskerea gehiago erabili daiten zuen enpresan?

Gure posibilitadeen neurrian (lehen esan dogunagaitik) jarraituko dogu euskeraz, gero eta gehiago erabilten: ahoz, idatziz, eta abar.

#### Busturialdean, daborduko, badagoz euskera-planak martxan daukiezan enpresa batzuk, zuek be bide horri ekiteko asmorik badaukazue?

Gura izango geunke euskera-plana ezarri, baina nahikoa murriztuta gagoz arlo batzuetan, daukaguzan mugakaitik. Halan eta guztiz be langile euskaldunen artean jarraituko dogu aurrera, apurka-apurka.



## MENDI IBILBIDEA

# Gaztelugatxera

**Nahiz eta** bide hau jarraitzeko oso erraza eta zailtasun bakoa izan, urtero, San Juan egunean (bagilaren 24a), jente askok, Gaztelugatxera joateko, Bermeo-Bakio errepidea erabilten dau. Hemen azaltzen dogun bidea jarraitzen badogu kilometro gitxiago egin beharko doguz, eta, ganera, errepidetik ibiltearen arriskua alboratuko dogu.

Bidegorritik, Areneko kiroldagirako bidean urteten dogu Bermeotik. Kiroldegia pasau eta gero, Bermeo-Bakio errepidea hartuko dogu. 150 metro aurrerago ezkerretara urteten dauen galipota hartuko dogu.

Baserri batzuk pasau eta gero, galipotak behera egiten dau eta, segiduan, gora. Hori aldatsa igo eta gero eskoitara urteten dauen bide bat hartuko dogu. Bide horrek hesi bat dauka alboan, beste baserri batera heldu arte. Ha baserria pasau eta gero Bermeo-Bakio errepidea topauko dogu barriro be, baina, guk ezkerretik igoten dauen galipota hartuko dogu. Galipotetik 200 metro-edo gora eginda, eskoitara urteten dauen zementuzko bide bat hartuko dogu, eta, apur bat aurrerago, erditik igoten dauen mendi-pista bat hartuko dogu.

Mendi-pistan gora ur-depositu bat topauko dogu, eta, bertan, ezkerrean,

eta bihurtze estu baten, harrizko kurutze okertu bat topauko dogu. Mendi-pista horretan segidu beharko dogu galipota barriro topau arte.

Galipotetik eta 50 metro-edo gora, harrizko mendi-pista bat topauko dogu, geure eskoitara. Pista hori hartuko dogu eta minutu batzuetara Burgoko basera helduko gara. (ordu 1)

Han, Burgoko tontorra eskoitara itxita, mendia inguratzen dauen mendi-pistea hartuko dogu, eta jarraituko dogu antena batzuk dagozan leku batera ailegau arte. Han, antenetan, behera egiten dauen txintxorezko pista bat hartuko dogu, San Pelaio baselizara heldu arte. San Pelaio baseliza ondoan kanposantu bat dago, eta haren alboan, galipotezko bide bat jarraituta, Bermeo-Bakio errepidea topauko dogu. Errepidea zeharkatuko dogu eta Eneperira arte bajatuko gara, han eskoitara urteten dauen bide bat hartuko dogu eta, handik, behera eta behera, Gaztelugatxeko eskilaretaraino joango gara. Handik gora baktaxa beraren erri-mora... (ordu 2)

Bermeora bueltan joateko Bizkaibusen Bakio-Bermeo autobus linea hartu geinke. San Pelaio baselizaren alboan geraleku bat dago.

## Egizu erreza da eta!

Atal honetan modu praktiko eta erraz batez euskara eguneroko bizitzan txertatzeko zenbait ideia erraz eta praktiko eskaini nahi dizkizuegu:



### HELBIDEAK EUSKARAZ:

Eskutitz, txartel eta abarretan helbideak euskaraz idaztea posible da, tokiko udalak kale izendegia badauka, begiratu udaleko Web gunean, izen horiek ofizialak dira beraz, ez dugu zertan euskaratzen lanik egiten ibili behar.



### KUTXAZAIN AUTOMATIKOA:

Zure txartela edo kartila kutxazain automatikoan sartu eta aukera ezberdinak agertuko zaizkizu. Kutxazain batzuetan zuzenean ikusiko duzu hizkuntza aldaketarako aukera beste batzuetan, "bete eragiketa batzuk" diotenari eman lehenengo eta gero hizkuntza aukeratzeari. Horren ostean euskera aukeratu!



### SAKELAKO TELEFONOAN ENTZUNGAILU AUTOMATIKOA:

Sakelako telefonoen (mobilak) kasuan, batzuetan bakarrik daukazu euskeraz ipintzeko aukera (Siemens eta Motorola); kasu horretan, berak adierazitako pausuak jarraitu beharko dituzu.



### ORDENAGAILUKO PROGRAMAK:

Ordenagailu programak euskeraz badaude merkatuan. Orduan, programa berrin bat instalatzeko bazabiltza, eskatu eta erosi euskerazkoa. Erderazko bertsioa badaukazu, euskerazkoa doan lortu dezakezu internetetik hartuta; horretarako, Jaurilaritzako web gunera joan. Hauek dira euskeraz lortu ahal diren bertsioak: Microsoft Windows XP eta Mandrake Linux 10. Euskerazko ofimatika paketea: Mikrosolft office 2003 eta OpenOffice.org [http://www.euskadi.net/euskara\\_soft/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/euskara_soft/indice_e.htm)

**Animo eta eman urratsak euskeraren bidean!**